

# LOREAK LORONTZIETAN<sup>1</sup>

Ixiar Rozas Elizalde

BERDIN-BERDIN dago dena. Ez da ezer aldatu ni joan nintzenetik. Mahai gainean jarraitzen dute mendian jasotako lore sorta lehorrak, Granadan erositako lorontzietan sartuta. Nonnahai zintzilik, elkarrekin egindako bidaien argazki eta oroimenak.

Eskuarteetan dut orain, aspaldiko lagunak bisitatzera joan zinen aldi hartan, kostaldetik bidali zenidan postala: *'Luze egiten zaizkit egunak zu gabe. Noiz besarkatuko gara berriro? Beti zure Sara.'*

Zorabiatuko nintzateke geroztikan denborak gure bizitza eta sentimenduak nola zizelkatu dituen berriro arakatzeko hasiko banintz. Gehiegitan egin dudalako beharbada. Nire memoria ez da oroimenak aukeratzen dituen horietakoa: edo dena dakarkit burura, bapatean, aukeraketa egin gabe edo dena ahaztea nahiago du. Ez dio oroimenari tarteko aukerarik ematen.

Leihoaren bestaldeko paisaiak ere berdin jarraitzen duela ikus dezaket. Goizaldeko ezetasunaren freskotasuna iristen zait leihoaren zehar. Hortxe ikus zaitzaketa oraindik, balkoiko barandaren gainean zangoak luzaturik, liburua magalean duzula, eguzkiari zuzenean begiratzean zure aurpegira erakurri nahi izango bazenu bezala. Orduak ematen zenituen horrela, nohizbehinka burua liburutik altxa eta irakurri berri zenuen pasarte ozenki erreztatzen zenidan, pasarte hunkigarri batek sortzen duen poza niri hel araziz.

Zuhaitz batzuen hostoak horitzen hasiak dira behekaldeetik. Astiro goazkigu prestatzen neguaren berehalako sarreraren aurrean. Maltzurra litzateke egunetik egunera neguan sartuko bagina, eguzki goxotik indargabeko eguzkira; zilarrezko gau epeletatik iluntasun margulara ohituzeko betarik gabe pasako bagina.

Hortxe jarraitzen dute, zero puska honetan itsasirik baleude bezala, laino multzoak. Beti, kostaldetik barnekalderako bidaiari, bailara honetan hustutzeko irrikitan bezala. Ni azken urteetan pilatutako gabezia zure beso artetik xurgatzeko

dudana. Baina oraindik ez zara iritxi eta ez dakit iritxiko zaren ere, ez eta herrian zauden ere.

NORAEZERA itzuli naiz zure eskutitza jaso nuenetik. Aurreko astean etxeko buzoian gutun azal urdina ikusi nuen momentutik iakin nuen zeurea zela eskutitza. Bi egun egon zen nire logelako mesanotxean, zutik, paretaren kontra, zabaltzera ausartzen ez nintzela.

Hiru, hiru dira, zure berri azkenekoz iakin nuenetik igaro diren urteak. Nola ez nintzen bada beldurtuko eskutitzak barnean gorde zezakeenarekin?

Lainoak, aspaldian kusi ditudan beltzenak gainera, mendi ton-torrek estaltzen dituzte, leporaino, beheruntz zabalduz doazen magalak agerian utziz. Nahikoa halere, mendiek bere osotasunean, lur mordoak duen poderioz, bailara inguratzen duteneko imajina nire buruan freskatzeko. Imajin hark nola-baiteko sorgintasuna isuri zuen geure begi-ninietan aurrez aurre izan genuen lehenengo aldi hartan.

Eta ondorioz, lau horma hauek geureganatzeko aukera eman zigutenean ez genuen bi aldiz pentsatu: egun batetik bestera, ordu arteko arazoak ahaztu, etxea erosi eta elkarrekin bizitzen hasi ginen.

Biak, bata bestearen ondoan, lortutako zorientasuna gaindiezina zela iruditzen zitzaigun garai hartan. Gure maitasuna munduko bakarra zela; errekaia, eta norbait gehiago berdina sentitezkotan mundua lehertzeko arriskuan egon zitekeela pentsatzen genuen.

Errealitate hutsa zen ametsean murgildurik bizi ginen garai hartan. Benebenetazkoa. Une honetantxe zerua zatikatzen duen ostartegunea bezain erreala.

Orduan ez ginen konturatu amets gozoak gaizto bihur zitezkeela inguru gordinaren erasoaren ondorioz; eta ez ginen babestu. Berotasunak oratuta genituen gorputz eta sentimenduak, poroak zabalik, eta horrexegaitik ginen hain babesgabe eta zaurgarriak.

GERTATZEN zaigun guztiaren zergaitia bilatzen pasatzen dugu geure bizitzaren erdia. Hiru laurden. Edo bizitza osoa. Nik ez dut oraindik ordea gure banaketaren arrazoia ulertzea lortu. Eta ez dut uste inoiz azalpenik aurkituko dudarik ere. Elkar maitatzen jarraitzen dugulako. Gure arimak ez dira

1. Ereintza Elkarrekin antolatuko "Errenteriako Hiria 1996eko XVI. Ipui Lehiaketako" Euskarazko 1. Saria.

inoiz bananduko, pasioa gorputz arrotzetan bilatzera irtetzen garen arren. Amodio iheskorak benetazko haren ispilu besterik ez direlako.

Badakit, joan nintzenetik beste eskuek maitatu zaituztela etzanda nagoen ohe honetan bertan. Ez zuk esan didazulako; ez da beharrezkoa. Lerroartean zure hitzek diotena ulertzeko gai izaten jarraitzen dut. Sara, oraindik ere hobekien ezagutzen zaitudan pertsona zara.

Ni ikusteko beharra omen duzu. Azken hilabeteetan gau eta egun ibili omen zara elkarrekin bizitakoa burutik kendu ezinik. Horregaitik erabaki zenuen, hiru urte ondoren, berriro eskutitz bat bidaltzea. Baina ni zure hitzak nondik heldu ez dakidala gelditu naiz. Galduta nabil geroztikan, noraezean; ezerk ez du nire arreta merezi, ez lanak, ez lagunarteak ez ta nire intimitateak berak ere.

Nola nahi duzu bada egotea? Jakin bazenekien etorriko nintzela. Bada hemen nauzu berriro hainbestetan antsiatu ditudan lau horma hauen artean.

ONGI gogoratzen naiz maletak besapean hartu eta joatea erabaki nuen egunarekin; oraindik atarian ikus zaitzaketa, eskuak patrikan, nire begietara zuzenean so eginez, zure begirada zorrotzez, zergatik galdezka, nire azalpen baten esperoan. Bien artekoa ezinezkoa zen eta kitto; herrian sortutako gure aurkako giroak gainera ez zuen batere laguntzen, haatik borroa bilakatu zen.

Hemen nauzu berriro baina. Hamar urte gehiago botako zenizkidakeen orain.

Zuk ez zenituen hogehitabi urte besterik; nik hogehitamar egin berriak. Herriko tabernako lehiotik arrats gorria ikus nezakeen. Eguzkiak atzekaldetik zure ilea pizten zuela sartu zinen. Nahiz eta herrian aste batzu neramatzkien, ez zintudan ezagutzen oraindik. Kanpotarra zinela pentsatu nuen hasieran; baina herritarrak nola agurtzen zizuten ikusita bertarra zinen dudarik gabe. Ondoko mahaian zegoen gazte koadrilarekin eseri zinen. Orduan entzun nuen lehenengoz zure aho-tsa:

– *Banuen, bai, herrira bueltatzeko gogoia –esaten zenuen mahaiko neska mutilak begia ginetik kendu gabe zenituela– Zihur nago, egun pare batean, dena berdin- berdin jarraitzen duela Ikusten dudanean, berriro alde egiteko gogoia izanen dudala, baina tira!!! Beti da atsegina bueltatzea...*

Sara izena zenuela entzun nuen. Hirira joana zinela Historia ikastera eta Historia bai, baina idaztea zela gehien gustatzen zitzaizuna. Idazle izatearekin amesten zenuela, alegia.

Begiaurrean nuen liburuaren orrialde berdina hamaika aldiz irakurri nuen arrats hartan. Eta pagina horri esker izkutatu ahal izan nuen neure lotsa. Ni nor nintzen galdetu baizizuten

denak niri begira jarri zinetenean. Esan, esan zizuten, herriko sendagile berria nintzela, nire bizitzari buruzko zenbait xehe-tasunekin batera. Gero kontatu zenidan, farregarri nengoela sudur puntan erdi erorita nituen betaurrekoekin, hiriko seño-ri-ta intelektual itxura harekin.

EZ DAKIT zenbat egun igaro ziren berriro elkar topo egin genuen arte. Goiz batean izan zen, lehenengo orduan. Ni laneruntz nihoala eta zu mendira bueltatxo bat ematera, gurut-zatu ginen herriko enparantzan.

– *Egunon... doktora –bota zenidan irrifarre zabal batekin–.*

Eta ni zer esan ez nekiela, aho bete hortz, irrifarre soil balekin eratzun nuen, erabat lotsaturik, lurrera begira nerabe bat bainitzan.

Beste batean kontsultara etorri zinen. Atetik sartzen ikusi zintudanean ezin izan nuen irrifarrea izkutatu.

– *Egunon doktora... –oraingoan zu begiratzen zenuen lurrera*

Bata txuria gainean edukitzeak adorea ematen zidan. Mendian txorkatila okertu zenuela esan zenidan. Nolabait iokoaren hariak nire eskutan zeuden egun hartan.

Herriko jaiekin etorri zen azkenean elkar hobeto ezagutzeko parada. Ezezegunen aurrean dantza egitea gorrotatzen nuen, batez ere denak begira edukiko nituela nekielako. *“Begira, begira gure doktoratxo nola desmadratzen den”* esango zuten denek. Eta zuk ezin zenuen dantzatu zure lesioa zela eta. Nahitanahiezkoa zen beraz elkarrekin aurrez- aurre ez aurkitzea.

Zu etorri zinen ni agurtzera, garagardoa eskuan zenuela: *“Zer orain, medikamenduak alkoholarekin nahastea kaltegarria dela esango didazu ez da?-, bota zenidan maltzurki. Ez zitzaidan batere atsegin zure ironia puntu hori. Segituan moztu nizun garagardoak hezurak gogortzen zituela ihardetsiz.*

Gurutzatu genituen lehenengo hitzak ez ziren ez oso erromantikoak izan. Herritarrak kanpotarrak gonbidatzea bete-beharreko ohitura zela esanez bigundu zenuen dena.

Handik aurrera garagardoak erraztu zuen hitz jarroa. Gau osoa eman genuen solasean; herriko plaza, musika eta zarata-tik urrun. Denetarik hitzegin genuen, baina bazegoen gure arten konplizitatea sortu zuen elementu bat: biak gaizki joana zitzaigun harreman bat ahazten saiatzen ari ginenekoa. Esperientzi mingarriak biak.

Zuk hirian utzi zenuen Pablo, unibertsitatean urte bat elkarrekin egon ondoren. Eta nik, zure herriko sendagile lan postua eskeini zidatenean, utzi nuen Miguel, urteetako Miguel; jaio eta hazten ikusi nauen hegoaldeko nire ziutatean. Bueltatzen naizen bakoitzean nirekin hain besozabala den hiria.

GAU HARTAN, gaztainondo baten orpoan eserita, hitzegin genuen lehenengo aldiz emakumeen arteko amodioaz. Nik ez bezala, hirian ezagutu zenituen lehenengo aldiz sexu bereko bikoteak, zure lagunartean gainera, baziren bat edo beste, eta beti kontaktu zizuten emakumeen arteko amodio aberasgarriagoa zela, erabateko identifikazioa lortzen zelako. Muxu bat ematearekin batera bi gorputz emeek erabateko ulergarritasuna lortzen dutela esan zenidan, puzzle baten bi pieza bezala egokitzen direla.

Gure hitzak zintzoak eta zuzenak izanagatik, sentimenduak garbi eta jario amaigabeaz azelartu genituen. Eta gau hartan izarrei begira geundela, lehenengo ferekak eta besarkadak etorri ziren. Handik aurrera hamaika aldiz errepikatu zenuen:

– *Karmen –xuxuriatzen zenidan belarrira-, zergatik ez zenidan lehenago esan emakume baten epeltasunean zeru ertza dastatzera irits zitekeela?*

– *Ni neuk ere ez nekielako, maitia.*

Eta Karmen ahozkatzen zenuen bakoitzean, nire izena urtuzeko zorian zegoela sentitzen nuen.

IZKUTUAN ikusten genuen elkar hasieran. Arratsetan kontsultako atzekaldean egoten zinen ni atera zain. Herri txiki hartan nork uler zezakeen bi emakumeen arteko amodioa?

Baina segituen nazkatu ginen gure amodioa gorde beharraz; pauso galanta eman zenuen zure gurasoen etxea utzi eta nire-

kin bizitzera etorri zinenean. Gero etxe hau erosteko aukera etorri zen.

Dena txukuntzen pasa genituen egunak aise datozkit burura. Paretak bota nahi izan genituen logela bakarrekoa bihur zedin: irekia, arresirik gabekoa, gure gorputzak bezalakoa. Nork esango zidan niri orduan hau utzi eta, zu gabe, nire ziu-tatera itzuli behar izango nuela?

IRISTEAR egon zaitezke. Apaletako bat hutsik dago, nirea, baina bestea, zure liburuekin gainezka. Liburu andana guztian zure azken nobelarekin, bigarrenarekin, egin dut topo. Joan nintzenetik ez duzu ez, denbora galdu.

Zorionak edo inspiratuta segituan hasi zinen idazten elkarrekin bizitzen hasi ginenean. Arratsetan lanetik itzultzean, goizean joatean utzi zintudan leku berberan jarraitzen zenuen. Idazmakinarean aurrean, egun osoan handik mugitu izan ez bazina bezala. Lehenengo nobela amaituta hirira joan zinen argialetxez argialetxera baina ezezkoekin bakarrik itzuli zinen.

Zein ezberdinak diren zure eskutitzan orain aurkitu ditudan hitzak eta gure banaketaren aurrekoak! Beste emakume bat dirudizu orain, helduagoa, osoagoa, etorkizunerako bidea eraikita edukitzeak ematen duen zihurtasunarekin. Zure bi liburuez mintzatzen zara, biek izandako arrakastaz etengabe eta ni ikusteko duzun gogo bizia errepikatzen duzu etengabe. Argi ikusten da bai dena ondo doakizula.





GURE azkeneko egunetan ez bezala. Lehenengo zure izaera aldaketa etorri zen: edozein huskeriagatik haserretzen zinen eta gainera, egunak ematen zenituen etxetik atera gabe.

Goiz batean mututzea erabaki zenuen, zure hitzak zuzenean barnekaldetik paperera pasatzea, garbiak iritsi zitezten inoren bitartekorik gabe. Niretzat jasanezina izatera iritsi zen egoera.

Patua bera gure aurka jarria zela zirudien. Aurrekoa gutxi balitz, eritetxe probintzialeko zuzendariaren eskutitza etorri zen. Bihotza, dagak bailiran, zulatzen duten hitzak ez dira ahazten: *“Andereño agurgarri hori: Erabaki mingarri bat hartzera behartu naute zuzendaritzatik... Zenbait bizilagunek sinadurak elkartu dituzte eta zure lanpostutik kentzea eskatzen. Ez duzu nonbait zure lana behar bezala betetzen eta ez zaie atsegin emakumeekin dabilen emakume baten eskuetan jartzea. Ez ahaztu herrian betetzen duzun funtzioa oso garrantzitsua dela eta herritarrek gustora ez badaude ... Datorren hilabeteetan lanpostua uztera behartuta izango zara...”* Eskutitza amaitzeko nire aurreko lanera ituztzea eskeintzen zidaten zerri hoiek, ez dute beste izenik.

Itzela izan zen kolpea; egun oso bat eman nuen ohean etzanda. Indarge, nire gorputzean ezer sentitzen ez nuela. Nire ondoan egoten zinen, txintik ere esan gabe, zure presentziarekin lagundu nahiaz. Baina ez dakit zer zen okerragoa: zu hor aurrean hilda bezala ikustea edo ni barnetik ahitzen ari nintzela nozitzea.

Hirira itzultzeko erabakia hartua neukanean hautsi zenuen zure isiltasuna:

– *Editorial* batetik idatzi didate *Karmen. Nire liburua plazaratu nahi dute.*

Beranduegi zen ordea. Ez nuen jadanik bailara hartan jarraitzeko kemenik: hutsik nengoen erabat. Sufrimendu hartatik ihes egin nahi nuen, lehenbaitlehen. Oinazeaz itsututa nengoen.

GEROZTIK ez dakit nola lortu dudan tormendu hartatik ateratzea. Zuzendaritzak herrira joan aurretik hirian nuen lanera itzultzeko aukera eskeini zidanean ez nuen birretan pentsatu.

Lana izan da urte hauetan nire babes bakarra; zuretzat zure nobelak izan diren bezala.

Ongi gogoratzen naiz zure lehenegoa lana korreoz jaso nuen egun hartaz. Gutun azal urdin batean zetorren, oraingo eskutitza bezala. Eta barnean niri zuzendutako hitzak aurkitu nituen: *“Nire lehenengo irakurle eta jarraitzaileari”*, azpian zure sinadura. Bost hitz horiek izan dira hiru urteetan zuzenean esan didazun gauza bakarra.

Zoragarria izan zen zure hitzetan murgiltzea Sara. Liburuaren haria ez zen autobiografikoa, ez zinen hasi berrien ohizko akatsean erori, baina zure hitzak ziren eta zure izakeraz kutsaturik zetozen niregana. Eta orain ordea nola izango da berriro zure ahotsa zuzenean entzutea?

ZERUA beltzatzen hasi da orain. Nire bihotzaren oihartzuna buru muinean entzuteko gai naiz: zeu zara, Sara aldapan gora datorrena.

Mantxo zatoz, hankak altxatzea kostatzen balitzaizu bezala. Baina ez da nekea. Irrifarre oso batek hartzen du zure ahoa.

Oraingoan ere zeu izan zara sorpresa ematen lehena. Esperientzi berrien aurrean asegaizta izaten jarraitzen duena zeu zara, Sara. Haurdun zaude, haurdun, ama izateko zorian.

ESKUTITZAN ez zara ausartu neska bat itxoiten ari zarela esatera. Ia aurpegira begiratu gabe, haurdun utzi zaituen gizona maite duzula esan didazu, bere ondoan zoriontsu zarela; berak eman dizula bizitzaren aurrean behar duzun indarra eta kemena; inoiz baino gehiago idazten duzunez gero, bigarren nobela bidean dagoela. Haurra izan baino lehen kaleratu nahi duzu, baina batera badatoz hobe, horrek zorte ona ekarriko dio Carmen.

Carmen izango baita bere izena. Neska datorrela jakin duzunik erabaki duzu nire izena jartzea. Eta jakina, ni neu izango naiz Carmentxuren, horrelaxe esan duzu, amabesoetakoa. Hau guztia entzun behar izan dut.

HIRIRAKO bidean errealitatera itzulzen ari naiz astiro. Azken egunetako amets izpia ahaztu beharko dut halaber. Aurrekoari eutsi. Eguneroko monotonian zoriontsu izaten ikasi.

Zeru ertzean, lainoek azken eguzki izpiak jaten dituzte astiro, haizearen menpe, kanpotik datorrena barnera ezinik. Eta orain badakit denak berdin berdinean jarraituko duela. 🍷